



TXIKIEN PROBEN ARAUAK

ZORNOTZAKO KORRIKALARIAK Atletismo Klubak Zornotzako Jai Lasterketaren XIV. Edizioa antolatu du. 2025eko uztailaren 13an egingo da, 10:00etan. Ondoren, **11:00** etan, etxeko txikien probak hasiko dira.

1. Izena ematea

Izena ematea doan izango da. Internet bidez eginez gero, 2025eko maiatzaren 19tik 2025eko uztailaren 10era bitartean (23:59ra arte) <https://sportmaniacs.com> helbidean. Alderantziz, lasterketa egunean in situ eginez gero, proba hasi baino 10 minutu lehenagora arte egin ahal izango da izen-ematea.

2. Dorsalak jasotzea

Dorsalak probaren egunean bertan banatuko dira Zubiondo Parkean, irteerako/helmugako arkuaren ondoan, proba hasi baino 10 minutu lehenagora arte.

3. Kategoriak

16-17 urte bitartekoen kategoria: 2009-2008 jaiotakoak.
14-15 urte bitartekoen kategoria: 2011-2010 jaiotakoak.
12-13 urte bitartekoen kategoria: 2013-2012 jaiotakoak.
10-11 urte bitartekoen kategoria: 2015-2014 jaiotakoak.
8-9 urte bitartekoen kategoria: 2017-2016 jaiotakoak.
6-7 urte bitartekoen kategoria: 2019-2018 jaiotakoak.
4-5 urte bitartekoen kategoria: 2021-2020 jaiotakoak.
0-3 urte bitartekoen kategoria: 2025-2022 jaiotakoak.

4. Segurtasuna

Parte-hartzaile batek istripua izanez gero, bertan dagoena derrigortuta egongo da laguntza ematera, ahal duen neurrian. Erakundeak proba behar bezala egiten dela zainduko du, eta boluntarioen laguntza izango du ibilbidean zehar eta Gurutze Gorriarena helmugan.

5. Ibilbidea

Beharrezkoa izanez gero, erakundeak ibilbidea aldatzeko eskubidea izango du.

6. Irteera

Irteera Zubiondo parkean izango da.

16-17 urte bitartekoen kategoria: 11:00
14-15 urte bitartekoen kategoria: 11:07
12-13 urte bitartekoen kategoria: 11:15
10-11 urte bitartekoen kategoria: 11:22
8-9 urte bitartekoen kategoria: 11:30
6-7 urte bitartekoen kategoria: 11:37
4-5 urte bitartekoen kategoria: 11:45
0-3 urte bitartekoen kategoria: 11:55

7. Erantzukizunak

Probaren aurretik, proban bertan eta ondoren ere parte-hartzaileei edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalte fisiko, moral edo materialen gaineko erantzukizun oro ukatzen du antolakuntzak.

8. Irudi-eskubideak

1. Proban parte hartzen duten guztiek onartzen dute erakundeak haien irudia publizitaterako, karteletarako eta gainerako publizitate-elementuetarako erabili ahal izatea proban eta probaren etorkizuneko edizioetan, bai eta webgunean, Facebooken, Instagram, TikTok eta abarretan ere.
2. Norbaitek ez badu nahi bere irudia erabiltzea, erakundearekin harremanetan jarri beharko du, helbide honetara idatzita: zornotzakokorrikalariak@gmail.com.